

UDAKO TAILERRAK

(Ekainaren 22tik irailaren 4 arte)



2020- 2025 bitarte jaiotako haurrentzat

(Ekainaren 22tik irailaren 4 arte)

Galtzattipik 2020- 2025 bitarte jaiotako haurrentzat, Udarako tailerrak eskeintzen ditu. Beti ere familiei, lana eta familia bizitza uztartzeko aukera eskeiniz. Tailer hauen helburu nagusia, jarduera desberdinen bitartez, haurrek ondo pasatzea.

TARIFAK

Tarifa	Aste bat (astelehenetik ostiralera)
Ordu bat	6 euro
Egun bat	30 euro
3 ordu arte	50 euro
6 ordu arte	70 euro
8 ordu arte	80 euro

Tarifa hauek janari gabe dira. Jangela zerbitzua kontratatu nahi baduzue tarifak honako hauek dira:

Bazkaria 7 euro/eguna

Haur Eskolak tailer hauek astelehenetik ostiralera, 2020-2023 bitarte jaiotako haurrentzat 7:30etatik 15:30ak arte eta 2024-2025 bitarte jaiotako haurrentzat 7:30etatik 17:30ak arte eskeiniko ditu. Hau horrela izanik, gurasoek erabakiko dute haurrek egingo duen ordutegia.

Matrikulazioa martxoaren 16tik aurrera izango da lehenago Galtzattipin egon diren haurrentzat. Besteentzat martxoaren 23tik aurrera izango da. Plaza erreserbatzeko kontratatutako aste guztiak eta bazkari guztiak ordaindu beharko dira. Transferentzia Sabadelleko ES82 0081 4254 4000 0114 1519 zenbakira egingo da, izena eman duen haurren izenean. Ordainketa egin arte, plaza ez da erreserbatuta egongo (epea 2 egunekoa izango da).

Udalekuetako bajak maiatzaren 15era arte onartuko dira; kasu horretan, transferentziaren zenbatekoa ken %50a itzuliko da. Datak geratzen diren plaza kopuruaren arabera aldatu ahal izango dira.

Kontratututako ordutegitik 15 minutu pasaz gero, orduka fakturatuko da: 6 euro/ordua. Mugatutako plazak.